

## ZAINTZEA DAGOKION HERRIAREN SASOIA DA

### Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Eguna dala-eta 2026ko apirilak 28

Ahuldura sakoneko aldia bizi dogu. Nekea ohiko ikuskizun bihurtu da gure auzoetan eta garraio publikoetan; ahalegin sanoaren emaitza ez ezik larregi eskatu eta gitxiegi itzultzen dauan ekonomiaren ondorena dan nekea. **Lan Pastoraltzarako eta Osasun Pastoraltzarako Espainiako Gotzainen Batzarreko** sailetatik argi eta garbi hitz egin gura dogu behin-behinekotasuna normalizatu egin dogula salatzeke eta bizia lehenetsiko dauan **zaintzaren etikarantz** jotzea ezinbesteko dala adierazoteko.

Behin-behinekotasuna ez da salbuespena, alkarbizitza jan egiten dauan sistema baino. 2025eko **PRESME txostenaren**<sup>1</sup> arabera, gure herrialdeko **langileen %47,5ek** era bateko edo besteko behin-behinekotasuna jasaten dau. Egiturazko segurtasunik ez honek etorkizuna planifikatzea galarazoten dau, familia loturak apurtu egiten ditu eta gizarte sarea ahuldu egiten dau. Gizarte lez ezin dogu onartu lana, duintasunaren iturri izan beharko leukena, giza gainbeheraren eragile bihurtzea.

Eskulanetan diharduen **emakume gazte migratzaileen %90ak** behin-behinekotasun larria jasatea eskandalu etikoa da. Eurek eusten deutse gure etxeei, gure nagusiak zaintzen dabez eta gure uriak garbitzen, askotan oinarrizko eskubide barik eta ezelango babes barik. Ahulenen ahalegin eta neke ikusezinean bermatzen dan gizarteak norabide morala galdu egin dau. Gehien zaintzen dabenak, hain zuzen be, babes gehien izatea eskatzen dau benetako zuzentasunak.

Behin-behinekotasunak gaixotzea dakar eta, kasu gehiegitan, jasaten dauanaren heriotza:

- **Adimen-osasuna:** Arazo psikologikoak jasateko arriskua **2,5 ugaltzen da behin-behineko baldintzetan**. Azken urtean, laneko 600.000 baja inguru izan dira arrazoi psikologikoek eraginda. Estres kronikoa eta antsietatea ez dira ahultasun pertsonalak, erritmo jasanezinen ondorio dira.
- **Laneko ezbehar-kopurua:** 2025ean, **735<sup>2</sup> lagunek galdu eben bizia** laneko ezbeharretan. Azken 30 urteetan (1996-2025), 30.129 heriotza izan dira lanean. Ez dira zifrak; prebentzinoaren aurretik errentagarritasuna jartzen dauan kulturak hondatu dituan familiak dira.
- **Laneko pobretasuna: 2025eko FOESSA txostenak** errealitate mingarriaz ohartarazoten gaitu: bazterketa larria jasaten daben lau etxetatik lautan gizon-emakume langileak dagoz. Gaur egun, lan egiteak ez dau pobretasunetik ataratea bermatzen.

Ezin dau inork ez ekianik esan: Behin-behinekotasuna ageriko gertaera da eta datuak eztabaidaezinak.

---

<sup>1</sup> Lan eta Gizarte Ekonomiarako Ministerioa. **PRESME txostena: behin-behineko, ezegonkor eta estresatu: laneko behin-behinekotasuna eta adimen-osasuna**. Madril 2025.

<sup>2</sup> Lan eta Gizarte Ekonomiarako Ministerioak emondako behin-behineko datuak.

- **Gobernatzea, funtsean, zaintzea da.** Politika ausartak eskatzen doguz: benetako egonkortasuna, bidezko soldatak, lan-ikuskapen sendoa eta adimen-osasuna gizon-emakume langileen bizitzaren zaintzan sartzea.
- **Langilearen duintasunak irabaziaren logikaren gainetik egon behar dau.** Zaintzen daben enpresak, etikoagoak izateaz gainera, jasangarriago eta gizatiarriago dira.
- **Kontu honek ezin gaitu ez hotz ez bero itzi.** Zaintza ez da bigarren mailako aukera; osasun oneko alkartearen oinarria eta justizia egiteko bide nagusia da.

## Zaintza gaur hasten da


Ebanjelioak eta giza etika unibertsalak argitura, zera dinogu: Heriotza dakarren ekonomiarik, gaixotzen dauan erritmorik eta saihestu daiteken heriotzarik ez!

Zaintzea dagokion herriaren sasoia da, lanak bizitzari eutsi egin behar deutson sasoia, eta ez ahuldu. Dei egiten deutsegu erakunde, sindikatu, enpresa eta herritarrei larritasun honetaz jabetu daitezana. Giza duintasuna ezin da negoziatu: **Justizia egiteko sasoiz da, zaintzea dagokion herriaren sasoia da!**

Madril, 2026ko apirilak 28

Jose Luis Mendez, Osasun Pastoralzarako Saileko zuzendaria

Antonio Javier Aranda, Lan Pastoralzarako Saileko zuzendaria



## ES TIEMPO DE UN PAÍS QUE CUIDE

**Con motivo del Día Mundial de la Seguridad y Salud en el Trabajo  
28 de abril de 2026**

Vivimos un tiempo de desgaste profundo. El cansancio se ha vuelto el paisaje cotidiano de nuestros barrios y transportes públicos; un agotamiento que no es fruto del esfuerzo sano, sino de una economía que exige demasiado y devuelve demasiado poco. Desde los departamentos de la **Pastoral del Trabajo y la Pastoral de la Salud de la Conferencia Episcopal Española**, alzamos nuestra voz para denunciar que hemos normalizado la precariedad y que es urgente transitar hacia una **ética del cuidado** que ponga la vida en el centro.

La precariedad ya no es una excepción, sino un sistema que corroe la vida común. Según el reciente **Informe PRESME<sup>1</sup> 2025**, el **47,5% de los trabajadores** en nuestro país vive bajo algún tipo de precariedad. Esta inseguridad estructural impide planificar el futuro, rompe los vínculos familiares y debilita el tejido social. Como sociedad, no podemos permitir que el trabajo, que debería ser fuente de dignidad, se convierta en una herramienta de erosión humana.

Es un escándalo ético que el **90% de las mujeres jóvenes migrantes** en trabajos manuales sufra precariedad severa. Ellas sostienen nuestros hogares, cuidan a nuestros mayores y limpian nuestras ciudades, a menudo sin derechos básicos ni protección. Una sociedad que descansa sobre el sacrificio invisible de las más vulnerables ha perdido su brújula moral. La verdadera justicia exige que quienes más cuidan sean, precisamente, las más protegidas.

La precariedad enferma y, en demasiadas ocasiones, mata:

- **Salud Mental:** El riesgo de sufrir problemas psicológicos **se multiplica por 2,5 bajo condiciones precarias**. En el último año, las bajas por causas psicológicas han rozado las 600.000. El estrés crónico y la ansiedad no son debilidades personales, son consecuencias de ritmos inhumanos.
- **Siniestralidad Laboral:** En 2025, **735<sup>2</sup> personas perdieron la vida** en accidentes de trabajo. En los últimos 30 años (1996-2025) han sido 30.129 las muertes registradas en el trabajo. No son cifras; son familias truncadas por una cultura que antepone la rentabilidad a la prevención.
- **Pobreza Laboral:** El **Informe FOESSA 2025** nos alerta de una realidad dolorosa: tres de cada cuatro hogares en exclusión severa cuentan con personas trabajadoras. Trabajar ya no garantiza salir de la pobreza.

Nadie puede decir que no lo sabía: La precariedad es un hecho público con datos indiscutibles.

- **Gobernar es, en su esencia, cuidar.** Exigimos políticas valientes: estabilidad real, salarios suficientes, una inspección de trabajo robusta y la integración de la salud mental en el cuidado de la vida de las personas trabajadoras.

---

<sup>1</sup> Ministerio de Trabajo y Economía Social. **Informe PRESME: precarios, inestables y estresados: precariedad laboral y salud mental**. Madrid 2025.

<sup>2</sup> Datos provisionales del Ministerio de Trabajo y Economía Social.

- **La dignidad del trabajador debe estar por encima de la lógica del beneficio.** Las empresas que cuidan no solo son más éticas, sino más sostenibles y humanas.
- **No podemos ser indiferentes.** El cuidado no es una opción secundaria; es la base de una comunidad sana y la mayor forma de justicia.

## El cuidado empieza hoy

Inspirados en el Evangelio y en una ética humana universal, decimos: ¡Basta de una economía que mata!, de ritmos que enferman y de muertes que pudieron evitarse.

Es tiempo de un país que cuide, donde el trabajo sostenga la vida en lugar de desgastarla. Hacemos un llamamiento a las instituciones, sindicatos, organizaciones empresariales y ciudadanos para despertar a esta urgencia. La dignidad humana no es negociable: **Es tiempo de justicia, ¡es tiempo de un país que cuide!**

Madrid, 28 de abril de 2026

José Luis Méndez, director del Departamento de Pastoral de la Salud

Antonio Javier Aranda, director del Departamento de Pastoral del Trabajo

